



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,7 hazi zen maiatzean

Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,7 hazi zen maiatzean, 2023ko hil beraren aldean. Beraz, apirilean izandako aldakuntza erritmoari eusten dio, eta egonkortasun handiko irudia ematen du azken bi urtekoan izan duen bilakaera aztertzen denean. Halaber, serie historikoaren errekorra ezarri zuen berriro, 1.019.213 afiliazio lortu baitzituen. Dagoeneko zortzi hilabete jarraian lortu da milioi bat baino afiliazio gehiago erregistratzea.

Sexuaren araberako analisiak bilakaera dinamikoagoa erakusten du emakumeentzat, haien urte arteko hazkundea %2,0 izan baita, gizonena %1,4 izan den bitartean. Beraz, beste urrats bat eman da bi sexuak bereizten dituen arraila ixteko. Gaur egun, 528.100 afiliazio inguru gizonetzkoiei dagozkie eta 491.100 emakumezkoiei, eta bien arteko aldea 2.500 afiliazio ingurutan murriztu da azken hamabi hilabeteetan.


GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

MAIATZAKO AFILIAZIOA


%1,7



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO

EMAKUMEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO


GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Sektore ekonomikoen araberako bilakaerak ez du aldakuntza esanguratsurik erakusten aurreko hilabeteekin alderatuta; izan ere, industria-ko afiliazioa %1,1 inguruko hazkunde erritmoan mantentzen da, eta zerbitzuetakoa %2,0 inguruan; eraikuntzak, ordea, jaitsiera txiki bat izan du (-%0,4).

AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazio hazkunderik handiena izan duten jarduera adarren artean, hezkuntza eta ostalaritza nabarmentzen dira, %3,8ko eta %3,5eko aldakuntza tasak lortu baitituzte, hurrenez hurren. Osasun jardueretan (%2,2), administrazio jardueretan (%1,4) eta manufakturretan (%1,1) izandako igoerak ere garrantzitsuak dira.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK

	2023ko maiatza	2024ko maiatza	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	1.002.586	1.019.213	16.627
Industria manufakturagileak	173.563	175.386	1.823
Merkataritza	134.473	135.131	657
Osasun arloko jarduera	110.589	112.988	2.400
Hezkuntza	82.275	85.434	3.160
Ostalaritza	70.259	72.752	2.492
Administrazio jarduerak	68.035	68.995	960
Lanbide jarduerak	61.903	63.774	1.871
Eraikuntza	58.735	58.483	-252
Administrazio publikoa	52.010	52.880	870
Garraioa	44.849	46.015	1.166
Etxeko langileak	29.497	28.938	-559
Informazioa eta komunikazioa	26.900	27.835	935
Bestelako zerbitzuak	27.423	27.504	81
Jarduera artistikoak	19.067	19.804	737
Finantza jarduerak	16.969	17.205	236
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	13.038	12.842	-196
Ur horniketa	6.376	6.482	106
Higiezin jarduerak	4.326	4.388	63
Energia horniketak	1.687	1.755	68
Erauzketa industriak	536	536	0
Lurraldez kanpoko erakundeak	77	87	10

Iturria: Gizarte Segurantza.